



Laneko Osasunaren Informazio Buletina

81 alea / 2022ko martxo

Berritasunak



Emakumearen Nazioarteko Eguna. Martxoak 8. Martxoaren 8a **Emakumearen Nazioarteko Eguna** dela eta, NOPLOIk gogorarazi nahi du beharrezkoa dela genero-ikuspegia txertatzea lan-segurtasunaren eta prebentzioaren arloetan.

Besteak beste, eta berdintasunean aitzina egiten dela bermatzearen, beharrezkoa da genero bakoitzaren ezaugarri berariazkoak kontuan hartzea lanpostuak, lanean dauden arriskuak eta eritasun profesionalak aztertu, sailkatu eta egokitzean.

2021eko lan istripuen behin-behineko txosten estatistikoa argitaratu da.

Laneko eta Gizarte Ekonomiako Ministerioak argitara eman du 2021eko lan istripuen txostenaren aurrerapena. Behin-behineko datuen arabera, estatuan 705 pertsona hil ziren iaz. Txostenaren arabera, baja ekarri zuten 9.925 lan istripu izan ziren iaz Nafarroan; horietatik 5ek hildakoak eragin zituzten, eta beste 64 larriak izan ziren. 2021eko kopuru horiek ezin dira 2020koekin alderatu; izan ere, urte hartan lan-jarduera nabarmen murriztu zen, COVID-19aren pandemiaren ondorioz.



[📌 2021eko estatistikaren aurrerapena](#)

Nabarmendua



EZ IRAULI ZURE BIZITZA. Otsailaren 16an “**Tu vida, sin vuelcos/ Ez irauli zure bizitza**” jardunaldi teknikoa egin zen Nafarroako Unibertsitate Publikoan, eta kanpaina Nafarroan abiarazi zen horrela.

Jardunaldian aurrez aurre eta streaming bidez parte hartzeko aukera egon zen eta, alor akademikoan eta nekazaritza alorrean, arriskuen prebentzioarekin loturiko eragile ugari parte hartu zuten. Apiriletik aitzina, zortzi informazio- eta sentsibilizazio-saio egingen dira Nafarroako nekazaritza-eskualdeetan, eta beste sei Lanbide Heziketako bi ikastetxetan.



[Jardunaldia](#) ikusgai dago *Salud Navarraren* Youtubeko kanalean.

NOPLOIk **Baso aprobetxamenduetako arriskuen ebidentzien azterketa. Motozerrarekin lan egitea** izeneko ikastaroa antolatu zuen otsailaren 17an eta 18an, eta hainbat administratziotako hamahiru lagunek parte hartu zuten.

ARPANA **Nafarroako oihangintzako prestakuntza eta espezializazio zentroak** eman zuen prestakuntza, teoria eta praktika uztartuz eman ere, eta ikasleek aukera izan zuten zuhaitza moztu eta prozesatzeko lana eta jarduera horren faktore espezifikoak berariaz ezagutzeko, bai eta alor horretako lan istripuak ikertzeko irizpide analitikoak garatzeko ere.



KONPROMISOA

Osasuna aktibo bat da. Laneko arriskuei aurrea hartzeak inplikatu beharra eskatzen du. Zuzendaritzaren konpromisoak irmoa izan behar du, eta horrek esan nahi du eskura jarri behar direla langileen osasuna bermatzeko denbora eta baliabideak eta horretarako plangintza egin behar dela.

Araudia



[1076/2021 Errege Dekretua, abenduaren 7koa, maiatzaren 30eko 773/1997 Errege Dekretua aldatzen duena. Errege dekretu horren bidez norbera babesteko ekipamenduak erabiltzeari buruzko segurtasun eta osasunerako gutxieneko xedapenak ezarri ziren.](#) BOE

Berriak

- [COLABORACIÓN ESPECIAL. La plena \(y necesaria\) integración de la Salud Laboral en la Salud Pública.](#) Revista Española de Salud Pública
- [El Gobierno de Navarra promoverá hasta 8 centros de día públicos y reformas en 50 residencias.](#) Diario de Navarra
- [Mensaje del Director General de la OIT para el Día Mundial de la Justicia Social 2022.](#) OIT
- [ROPS: una estructura salvavidas en tractores.](#) Diario de Noticias
- [Enero registró 32.177 bajas por la infección de covid, un tercio de todas las que ha habido en la pandemia.](#) Diario de Noticias
- [Uno de cada cuatro empleados se plantea dejar su trabajo.](#) Diario de Noticias
- [La empresa Magotteaux, de Urdiáin, tendrá que pagar 320.000 euros a un trabajador incapacitado a causa del amianto.](#) Diario de Navarra
- [Salario emocional, cuando el sueldo no es suficiente para retener al personal.](#) Prevención Integral

Argitalpen digitalak



Archivos de Prevención de Riesgos Laborales – Nº25
APRL



Trenbide-gainegiturak eraikitzean sortzen diren lan-arriskuak prebenitzeko gidaliburua
OSALAN



Seguridad y Salud en el Trabajo. Nº 109.
INSST



Mujeres en el Sector Agrario.
Ampliando el campo de visión.
Tríptico.
INSST



AMIANTO:
Un enemigo oculto
INSST



Análisis de la mortalidad
por accidente de trabajo
en España
INSST



Trabajos seguros
con amianto
INSST



Guía para metodología de
evaluación de los riesgos
laborales asociados al teletrabajo
FOMENT DEL TREBALL



Aplicación de las normas
internacionales de
trabajo 2022
OIT

Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuak (NOPLOI) ez du bere gain hartzen argitaraturiko artikuluen eta albisteen edukirik; izan ere, bere horretan hartu dira kasuan kasuan aipaturiko webgunetik, eta ez zaie aldaketarik egin ezta deus erantsi ere. Edozein kontsulta edo iradokizun egin nahi baduzu, edo ez baduzu bidaltzaile honen informazio gehiago jaso nahi, NOPLOIra jo dezakezu, helbide elektroniko honetara: ispn.ufii@navarra.es



ARGITARATZAILEA :

Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutua (Landabengo industrialdea, E eta F kaleak. 31012 Iruña)

☎ 848 423 771

Edizio-formatua: fitxategi elektronikoa.
2022ko martxoa